



Gure haur eta gazteak, etorkizuneko helduak izango direlako Andra Mari Ikastolan XXI. mendera begira jarri gara. Etorkizuneko heldu horiek, nolako ezaugarri eta baloreak jasotzea nahiko genukeen gogoeta egin eta komunitate osoari helarazi nahi diogu. Zoriontsu izan daitezen, bizitzan zehar izango dituzten erronka afektibo, sozial, kognitibo eta ekonomikoei aurre egiteko estrategiak izan ditzaten bilatzen dugu. Amesten dugun pertsona eredu horren alde lan egingo dugu, gure burua landuz eta metodologia egokiak inplementatuz. Horretarako, helduok haien eredu izan behar dugunez, geure buruari egin behar dizkiegun galderez betetako triptiko hau sortu dugu ikastolaren komunitate osoa, langile eta guraso, norabide horretan elkarlanera biltzeko asmoz.



Elkarlana

NOLAKO PERTSONAK BEHAR DITUGU GIZARTEAN?

Kezka horrek garamatza gogoeta egin eta gure ikasleengan eragin nahi ditugun jarrera eta gaitasunak zehaztu eta indarrak bide horretan jartzera.

IKASLEAREN IRTEERA PROFILA


Andra Mari Ikastola



Ikaslearen irteera profila

Galdera sinplea da: Nolako pertsonak hezi nahi ditugu gizarte, herri eta mundu hobe bat egiteko? Erantzuna oso konplexua: gogoeta, eztabaida eta solasaldi luzeen ondoren, hemen behean duzu Andra Mari Ikastolako irakas-taldeak hondatu duen profila.

Guztion esku dago, haur, gazte eta heldu eredugarriak izatea.



EUSKALDUN KONPROMETITUA ETA ELEANITZA

Euskararen transmisioaren garrantziaz jabetzen al gara helduok? Euskara erabiltzen al dugu egunerokotasunean? Beste kultura batzuk ezagutzeko gogoia izaten dut?

KOOPERATIBOA

Helduok ba al dakigu gure ardurak onartu eta taldean lan egiten? Besteak aktiboki entzuten al ditugu? Konpromisoak hartzen ditut ala saihestu egiten ditut?

AUTONOMOA

Beraien adinaren arabera gure ardurak hartzen uzten al diegu? Mugak ongi zehazten al dizkiegu?

ADEITSUA

Nola ikusten dut mundua, arriskutsua edo aukeraz betea? Haur/gazteari munduaren zein ikuspegi transmititzen diot? Hori al da benetan beretzat nahi dudana?

EKINTZAILEA

Zein da helduon jarrera lanarekiko? Lanak asetzen al nau eta zorientzua al naiz nire lanarekin? Ba al dut nire lanarekiko jakin-minik? Edo etsita nago?

SORTZAILEA

Zer jarrera daukat arazoaren aurrean? Akatsak eginez eta konponduz ikasi egiten dut ala berehala etsitzen dut?

ZIURRA

Nire burua ezagutzen, errespetatzen eta onartzen dut? Ni neu izaten saiatzen naiz? Edo besteek niganetik espero duten bezala agertzen naiz?

KRITIKOA

Haur/gazteari bere iritzia galdetzen al diogu? Aktiboki entzuten dugu? Bere iritzia propioa izaten uzten diogu gurearen aurkakoa bada ere?

KOMUNIKATZAILEA

Besteekin komunikatzeko garaian ni neu al naiz? Nola komunikatzen naiz haur/gaztearekin?